

MOZIO ARRUNTA,

OSAKIDETZAK DONOSTIAN IRAGARRITAKO MURRIZKETAK DIRELA ETA

Juan Karlos Izagirre Hortelano EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Osakidetzak Donostian uda honetan egingo dituen murrizketak direla eta.

JUSTIFIKAZIOA

Ekainaren bukaeran Osakidetzak publiko egin du uda honetan murrizketak egingo dituela Donostian eskaintzen dituen zerbitzuetan. Zehatz-mehatz, ondorengo osasun-zentroetan ordutegiak murriztuko dira:

- Aieteko Osasun Zentroan
- Amara-Erdialdeko Osasun Zentroan
- Intxaurrendoko Osasun Zentroan
- Loiolako Osasun Zentroan
- Bidebietako Osasun Zentroan

Zentro hauetan itxiera-ordua aurreratu egingo da, hiru edo bi ordu; ohiko arratsaldeko zortzietatik arratsaldeko bostetara, edo ohiko arratsaldeko bostetatik arratsaldeko hiruetara.

Honi guztiari gehitu behar zaizkio Bengoetxea kaleko PACeko murrizketak, egun batzuetan ez baita medikurik egoten guardia osoan.

Uda garaian erabilera murrizten dela diote osasun arloko arduradunek eta aurreko urteetan ere gauza bera egin dutela. Baina hori ez da horrela, eta murrizketa horiek zerikusi handiagoa dute Osakidetzak azken urteetan hartutako zoritzarreko norabidearekin, EAEko osasun-sistema publikoa ahultzera daramanarekin.

Horren ondorio nagusia da donostiarrei eskaintzen zaien osasun arretaren kalitatea kaltetzea, eta donostiar guztien ordezkari gisa, horren aurrean posizionatu beharra daukagulako aurkezten dugu mozioa hau.

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udaltzaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari ez dezala murrizketarik egin Osakidetzaren Aiete, Amara-Erdialde, Intxaurrondo, Loiola eta Bidebietako osasun-zentroetako eta Bengoetxea kaleko PAC zerbitzuetan, ez eta Donostiako beste inongo zentrotan ere, eta behar diren baliabideak jar ditzala horiek saihesteko.

Donostian, 2023ko uztailaren 7an

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH BILDU udal taldeko bozeramailea